

**BILBO.** «Ez da lege hausterik gertatu, hutsegiteak izan ziran», txostenaren arabera

# Arriagako Ikerketa Batzordeak akats asko igarri ditu kontratazioetan

Arlo teknikoan, artistikoan eta administrazioan egindako kudeaketa txarretsi dau

Hasier Rekondo

«Irregularitasun ugari igarri doguz hasieratik, bai langilego finkoari edo behin-behinekoari jagokonean, bai lan poltsako deialdiak eta kudeaketa egiterakoan», adierazo eban atzo, Arriaga Alkarte Publikoaren Ikerketa Batzordean lehendakari lanetan jardundako Jose Maria Gonzalok. Batzordeak burututako lana independentea izan dala aitatu eban Gonzalok. «Akatsak ez eben lege hausterik eragin; etorkizunean konpondu beharreko hutsegiteak baino».

Akats aitagarrienak 1995an deitutako lan poltsari jagokoz: «egoan lan ezegonkortasuna zala eta, deitutako lan poltsak ez zituan bete publikitate eta lehia-ri jagokozan baldintzak». Luis Iturri Arriagako zuzendari ohia- ren eta bere lan taldearen lana (Andueza administrazio burua eta Otxoa teknika alorreko arduraduna) txarretsi dau Batzordeak. «Erabili eben erizpidea profesionaltasunak agindutakoa izan zan». Ganera, urteotako Administrazio Batzordean lana be salatu dau batzordeak, eta «maila bajuagoan» langilegoaren ordezkartzaren lana be txarretsi dau.

## Hutsetatik, hausnarketa

Jose Luis Sabas Arriagako Administrazio Batzordeko burua- ren berbetan, «Arriagak eroan dauan kudeaketa era aldatzeko ordua heldu da. Txostenak di- noana onartzen dot nahiz eta ez egon ados Arriagaren kudeake-



XOUSA SIMAL

2000ko zemendian 13 langile kanporatu zituen Arriagatik, Sabas zinegotziaren erabagiz.

## ESANAK

**JOSE MARIA GONZALO**  
(Ikerketa Batzordeko lehendakaria)

«Arazoa ez da familiakoak izatea lan poltsan, plazak beteteko deialdia ez egitea baino»

**JOSE MARIA GONZALO**  
(Ikerketa Batzordeko lehendakaria)

«Langilegoari euren arteko tirabirak gainditzeko deia egiten deusagu Batzordetik»

**JOSE LUIS SABAS**  
(Administrazio Batzordeko Burua)

«Sasoi barri bat hasteko garaia da, danok egin behar dogu hausnarketa sakona akatsen ganean»

tagaitik aldendu nazala dinoan- nean; normalkuntza eta legeta- suna bilatu behar doguz etorki- zunean». 2000ko zemendian 13 behin-behineko langile kanpo-

ratuak izan ziran euren lanpos- tuetatik, lan finkoa eskatu ebela eta. Horren ostean sortutako Ikerketa Batzordeak egindako gomendioen arabera, «zuzen-

daritza lan taldea ohartuarazo dogu, akatsak errepikatu ezker- o disziplinako espediente zabal- tzeko eta zigorrak ipinteko arra- zoiak izango litzakez».

## LANDER ETXEBARRIA

EHko udal bozeroalea

**«EAJk urteotan ezarritako kudeaketa ereduan oinarritu dira, Batzordeak igarritako irregularitasunak»**

Lander Etxebarria EHko udal ordezkaria Ikerketa Batzordeak egin- dako lana goratzeaz ganera, gogor kritikatu eban EAJren kudeaketa eredua. «Gertatutako irregularitasunen erantzule nagusiak Arriagak izan dituan lehendakariak dira: Joseba Intxaurrea, Mikel Ortiz de Arratia, Jon Gangoiti eta Jose Luis Sabas». EHko ordezkariak gehi- tutakoaren arabera, «EAJk ez dau asmorik euki langilegoaren kon- tratzino prozedurak gardentasunez burutu eitezan; edozein modu- tan egitea bultzatu dau».

Etxebarriaren esanetan bardintasuna, publikitatea eta lehia bal- dintzak bete beharko litzatekez etorkizunean kontratazioetan; «13 langileak kanporatuak izan ziran- ean EB-IUk eta EHk eskatuta osatu zan Ikerketa Batzordea; ilegaltasunik izan ez dan arren, oso arrisku- tsua da Alkarte Publiko batek legeak bere kabuz aukeran erabiltea gitxienezko printzipio batzuk gorde barik». Horrezaz ganera, Etxe- barriaren eritxiz, askotan ukatu egin jako eskatutako informazioa Administrazio Batzordeari, lehendakariaren aldetik. «Ganera, sub- kontratak erabili ditue; inolako kontrolik barik».

## EDUARDO JOSE PORTERO

PPko ordezkaria Administrazio Batzordean

**«Zuzendaritzako kideei erantzukizuna leporatzea ez da onargarria, azken baten behargin hutsak dira eta»**

Arriagako Administrazio Batzordeko popularren ordezkariak boto partikularra aurkeztu eutsan txostenari. Porteroren esanetan, «txos- tenak 6garren puntuan kontratazio irregularitasunak dirala sortuta- ko erantzunkizunak partekatutakoak dira esaten dau; nahiz eta 4ga- rren puntuak argi adierazo ondorioetan enplegatuek ez dabela be- rezko erantzunkizunik».

«Txostenak ez dino ezer Administrazio Batzordeko kideen gane- an, ez lehendakariaren ez Arriagako zuzendariaren ganean, eta ez jake zuzendu beharreko erantzunkizunik leporatzen». PPko orde- zkariak gehitutakoaren arabera, «ez teknika buruak, ez administrazi- no eta arduradun artistikoak ezin dabe izan inolako erantzunkizunik euki kontratazio alorrean, ez ebelako inolako kontraturik ez sinatu ez baimendu; hirutako inork ez eban eskumenik langilegoaren kon- tratazioan, boteretik bako enpleguak ziran eta».

Porteroren berbetan, txostenak seigarren puntuan dinoana aldatu ezean, «interesatuek auzitegi- taria jo leikie, ezarritako zigorra dala eta, eztabaida epaitegi- taratzea ekarriko leukela».

## LAGURAEAN

GALDAKAO

**Euskera sustatzeko plana ipiniko dabe martxan Udalean**

Udaleko beharginek euskera jakin daien plana ipiniko dabe martxan Galdakaon. Horretarako, alfabetatze eta euskalduntze ikastaroak emongo deusiez behargi- nei. «Beharginak eguneroko hartu-emonak euskeraz egi- teko gai izatea» da plan ho- rren helburua. Holan, arlo sozialeko eta jentearen au- rreko lanpostuak elebidunak izatea gura dabe udal aginta- riek.

**1.130 milioi pezetako zorra kendu gura dau Udalak bost urtean**

Bihar eztabaidatuko dira Galdakaoko Udalean 2001 urteko aurrekontuak. Aur- kez- tuko diran aurrekontue- tan agertzen danez, 355 mi- lioi pezeta agertzen dira Udalaren zorrak kitatzeko. 1995 urtean 1.130 milioi pe- zetako zorra eukan Galdaka- oko Udalak, eta bost urtean ganetik kenduko daua uste dabe udal agintari- e- k. 2001 urtearen amaieran zorrik ez eukitea dala helburua esan dau Fernando Landa Galda- kaoko alkateak.

ARRANKUDIAGA

**Alde zaharra barritzeko asmoa daukie**

Orain dala gitxi, arau subsi- darioak aldatu zituen Arran- kudiagan. Horren arabera, Udalak behartuta dago herria- ren alde zaharra barritzera. Elexalde, Zollo-Elexalde eta Atxeta inguruetan eukiko dau eragina horrek. Alde za- harra ez hondatzeko neu- rriak hartuko ditu Udalak eta eraikin barriei jagokon arau- di barria egin beharko dau. Atxetan, esaterako, lurrak desjabetuko ditu Udalak aparkalekuak egiteko.

BARAKALDO

**PP: «EHgaz tratua daukagula dinoan- ak burua galdu dau»**

PPk EHgaz eta Ezker Batua- gaz tratua daukala esan eban Carlos Pera Barakaldoko al- kateak. Rafael Carriegas Ba- rakaldoko PPko bozeroaleak erantzun egin deutse adie- razpen horreei: «EHgaz tra- tua daukagula dinoan- ak bu- rua galdu dau», azpimarratu dau. «EAJgaz tratua daukala entzuteak Perari min egiten badeutso, dimititu egin be- har dau», ganeratu dau Ca- rriegasek.